

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Foru Aldundiaren eta bere Erakunde Administrazioaren 2008ko ekitaldiaren ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Foru eta Erakunde-Administrazioaren finantza egoera aztertzen du.

Erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du Arabako Foru Aldundiak 2008ko ekitaldian legezotasuna betetzeari dagokionez, baina iritzi orokor honekiko hainbat salbuespen azaldu ditu.

Honela, bada, Epaitegiak azaleratu du zalantza egoera dagoela Europako Erkidegoetako Auzitegian aurkeztutako kasazio errekurtsoen emaitzen gainean, zerga salbuespenak, kenkariak eta hobariak berreskuratzeari dagokionez. Halaber, HKEEk azpimarratu du txosten hau idatzi dugun datan Europar Batzordeak ez duela iritzirik plazaratu AFAk hartutako erabakien exekuzioari dagokionez gauzatutako jardueren gainean, ez eta AFAk hiru enpresaren alde hartutako laguntza-neurriengatik 2009ko azaroaren 20ko errekerimendua dela-eta gauzatutako jardueren gainean.

Berebat, enpresek Arabako Erakunde Juridiko Administrazioaren aurrean jarritako eta ebazteko dauden beste errekurtsu batzuei dagokienez zalantza erakutsi du; errekurtsuak hainbat laguntza fiskal itzultzeko eskakizunari eta zenbait enpresak aurkeztutako ondare erantzukizunagatiko eskakizunei dagozkie.

Zerga sarrerei dagokienez, HKEEk azpimarratu du 54 enpresari bermerik gabe zerga zorren ordainketa plan bereziak eman zaizkiela, 28,5 milioi euroko zenbatekoarekin, indarreko legeriaren arabera ezargarriak direnaz azpiko interes tipo txikiagoekin eta gehienara baimendutako aldiak gaudituz; izan ere, zerga arautegiak baldintza

berezietan gerorapenak emateko aukera aurreikusten duen arren, Epaitegiaren iritzira ezinezkoa da interes tipoak murriztea.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan salbuespenak publizitate eta lehiak ez betetzeari dagozkio; azpimarratzekoa da zortzigarren aldiz jarraian Derrigorrezko diru-bilketa agentzia zerbitzua emateko administrazio-kontratua luzatu izana, indarraldiak legezko zeinahi aurreikuspen gaindituaz, nahiz egoera hau 2009an zuzendu den zerbitzua prozedura ireki bidez esleitu baita.

Jada diru-laguntzen kapituluan salbuespenak publizitate eta lehia printzipioak sustatzeko ezintasuna behar hainbat ez justifikatu izanari dagozkio.

AFAren bi erakunde autonomoek indarreko araudia bete dute ekonomia-finantzaren kudeaketan, salbuespen izan direlarik Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean hainbat esleipenetan publizitate eta lehia printzipioak ez bete izana.

Epaitegiaren iritzira, AFAk eta Gazteriaren Foru Erakundeak eta Gizarte Ongizaterako Institutuak aurkeztutako kontuek alderdi esanguratsu guztietan ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute, nahiz AFAren kasuan 2008ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikin erabilgarrian bi zuzenketa azaleratu dituen, geldikina 148 milioi eurotik 36 milioi eurora murrizten dutenak eta txostenean bertan zehaztu direnak.

Txostenak, gainera, % 50etik gorako partaidetza duten hamar foru sozietate publikoak fiskalizatzen ditu eta erakunde fiskalizatzailearen iritzi orokorra aldekoa da, bertan jasotako ez-betetzeak salbuetsita. Berebat, sozietate publiko horien urteko kontuei buruzko iritzi aldekoa eman du.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalen kudeaketari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak. Atal honetan aipatutako zenbait egoera eta gomendio aurreko ekitaldietako fiskalizazio txostenetan jasotakoen pareko dira.

Amaitzeko esan behar da finantza analisisian ondorioztatu dela emaitza arrunta % 54 murriztu dela 2008ko ekitaldian, behin 2007an zerga salbuespenak, kenkariak eta

hobariak itzultzeagatik jasotako aparteko sarreren eragina kendu ostean; gainera, azpimarratu behar da aurrekontuko zorpetzean igoera nabarmena izan dela, diruzaintza geldikinak behera egin duela eta kostu arrunten goranzko joerari arreta berezia eskaini behar zaiola.